

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

#### Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko 2023ko zerga kobratzea

Ordaintzeko epea:

Hiri eta landa OHZ, ordainketa zatikatua:

Borondatezko epea: ekainaren 1etik uztailaren 30era (lehenengo epea), eta uztailaren 1ean kobratuko da; urriaren 1etik azaroaren 30era (bigarren epea), eta azaroaren 2an kobratuko da.

Premiamendu aldia: ehuneko 5eko erretegia egongo da abuztuaren 1etik aurrera (lehenengo epea) eta abenduaren 1etik aurrera (bigarren epea), eta hasiera emango zaio premiamenduko betearazte bide administratiboari, halaxe xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Erregelamendu Orokorrak.

Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratzearen banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpenean agertzen diren banku bulegoetan ordaindu ahal izango dute, borondatezko epean.

Alegria-Dulantzi, 2023ko maiatzaren 18a

*Alkatea*

**JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA**